# marijesiak

1. Sacramentu Santu Jauna
zelebradu zanian
izena epiñi deutse
Jesus Salbadoria.

2. Abendu Santu onetan
Kristoren jaiotzia
kontentu aren andiz
guztiok poz-gaitian.

3. Adan formatu zan
lenengo lurrian,
pekatu egin eban
Paradisu Eternalian.

4. Linboan egozan deiez
bost milla urtian
Jauna zerutik lurrera
etorri zan artian.

5. Eguzki dibinala
gauaren gauerdian
etorri zan mundura
gizonaren antzian.

6. Trinidade altuko
Bigarren Personia
transformadutik dago
Belen-engo portalian.

7. Idigi dira zeruko
ate diamantezkoak
arexekin batera
leio izarrezkoak.

8. Nabegadua izan zan
bederatzi illa betian
mundu onetako
itxasoaren ganian.

9. Eguzkia zelan doan
kristelaren artetik,
Semia jaio alan
amaren sabeletik.

10. Nor da emen mensajerua?
San Gabriel aingerua
egingo dabena ondo
Jaunaren agindua.

11. Astoak arrantzia
idiiak arnasia
alan berotzen eben
jaio zan infantia.

12. Iru Errege Magoak
ain bide luzian
ostatu artu eben
ain etxe pobrian.

13. Gasparrek intzentzua
Meltxiorrek urria
Baltazarrek eroeban
mirra presiosua.

14. Erodes Erregia
ain faltzo traidoria
zeren damua dozu?
Kristoren jaiotzia?.

15. Mendian zegoala
jaboten ganadua
agertuten jakozan
zerutik aingerua.

16. Corrian los pastores
dejando su ganado
y daban grandes voces
Jesus sea adorado.

17. Agur ba donzellia
graziaz guztiz betia,
zure izena dozu
Maria Birjiñia.

18. Arkanjel San Gabriel
anunziadoria
ez gaizuz espantatu
ain jente umildia.

19. Josepek dirautso
Maria Birjiñari:
noz agertuko dabe
esperantza gure ori.

20. Nor eta nor bizi da
etxetxu zar orretan;
nor eta zer gura zeunke
Jaunaren ordu onetan.

21. Billozik bazagoz ere
ez zara zu pobria,
zeruan josirik dagoz
zuretzako erropia.

22. Otzaren negarrez dago
jaio dan infantia
bere Amak dirautso
o ze musika dultzia!

Lenengo lau egunetan onek argitaratuniko bertso edo kopla guztiak "Abendu Santu"-aren soñuagaz abestuten dira. Urrengo bost egunetan, "Billosik bazagoz"-en ~~soñua~~ erabilten da. Lenengo ~~so~~ñuarentzako leloa au da:

"Maria Jose
Jesus Maria"

eta azkenengo egunetako soñuarentzat au:

"Jesukristo
Gurtutzen ~~Adoratzen~~ zaitugu
Jesukristo.

Bederatzi egunak amaituteko, Gabon egunaren goizaldian, kopla onek esaten dira:

23. Belenengo urian
Gabon gabaren erdian
Birjiña Santisimia dago
kontzolaziño andian.

24. Korraletako ardiak bere
dantzan ebiltzan orduan
gure Jesus Salbadoria
jaio dalako munduan.

25. Jesus dibino gauaren otza
jausten da ... oñetaziyo
erloju biyen onela bada
ilda ganadu guztiye,

26. Ortixik gora ni noiela
ospitaletxu zar baten
aita San Jose topatu neban
astotxu zar bat txalmatzen.

27. Nazareteko tenpluan dago
Dama eder bat jarririk
izena berak Maria dauko
ondo graziaz beterik.

28. Bederatzi gau tristetan
ibilli gara otzetan
borondaterik badaukazue
poztuko gara benetan.

Sant ucoqule coltxatan

Eta onen soi kopla ondoren
"Da bart Belenen,
da bart Belenen,
jaio da Jesus Nazaren.

1966